



# IBILGAILU ELEKTRIKOAK KARGATZEKO PUNTUEN SAREA



## ZERGATIK?

Ibilgailu elektrikoak kargatzeko azpiegiturak beharrezkoak izango dira epe laburrean, ibilgailuaren propulzio teknologia errotik eraldatzen ari baita; gaur egun mundu mailan ezarrita dagoen propulzio-teknologia hau, finean, propulzio elektrikoko ibilgailuarena da.

## NORK?

Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak



## ZERTARAKO?

Gipuzkoako 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, ibilgailu elektrikoa kargatzeko aukera ematea.

## NOLA?

- 1) 5.000 biztanletik beherako Gipuzkoako udalerrietan mota honetako instalazioak ezartzeko aukerak aztertuko dira, betiere horrelako birkarga-punturik ez badute.
- 2) Instalatu beharreko birkarga-puntuak zehaztu ondoren, ekintzaren inpaktua handitzea ahalbidetuko duten laguntzak eskatuko dira. Laguntza horiek inbertsioaren % 40ra irits daitezke.
- 3) Instalazioak hornitu, instalatu eta martxan jartzea, kanalizazioak eta kontrol-softwarea hartzen ditu barne.
- 4) GFAk bere gain hartuko du birkarga-puntuaren kudeaketa eta mantentze-lanak lehenengo bi urteetan, eta, ondoren, doan lagako dizkie udalerriei, eta haiek arduratuko dira puntu horiek kudeatzeaz eta kontrolatzeaz.
- 5) Lehenengo 2 urte horietan, gutxienez, erabiltzaileek doan egin ahal izango dituzte kargak.
- 6) 300.000 euroko aurrekontua aurreikusten da (200.000 €GFAk jarriak eta 100.000 €lortutako laguntzetatik), gutxienez 20 birkarga-puntu instalatzeko.




## NON?

Lurraldekoa

## NOIZ?

2022/10/10



200.000€